

## **Juan Gallegok eta Javier Gallego “Crudo”K Gasteizen aurkeztuko dute Como Si Nunca Hubieran Sido, Mediterraneoko tragediari buruzko komiki ilustratua**

**Arabako Foru Aldundiaren eta Gasteizko Udalaren lankidetzaren duen ekitaldi hau Montehermoso Kulturunean izango da.**

**Aurkezpenean Idoia Moreno Moriatik (Lesbos) etorri berri den MSFko erizain gasteiztarraren testigantza, Mursegoren zuzeneko saioa eta “Coming Ashore” film labur dokumentalaren emanaldia izango ditugu.**

Datorren larunbatean, otsailak 23, 12:00etan, Juan Gallego eta Javier Gallego “Crudok” *Como si nunca hubieran sido* aurkeztuko dute Montehermoso Kulturuneko Ortuño Aretoan. Europara heldu nahian Mediterraneoan hiltzen direnen tragediari buruzko poema luze irudiztatua. Mugarik Gabeko Medikuek (MSF) erakundearekin lankidetzan proiektu solidario gisa sortu zen komiki liriko eta salatzaile honen sorburu 2015ean argitaratu zen prentsako izenburu hau izan zen: “Podrían haber muerto 900 personas ayer en el Mediterráneo”. Gaur-gaurkoz badakigu azken bi hamarkadetan 35.000 pertsona baino gehiago zendu direla Mediterraneoan. Orain dela hilabete batzuk desagertuen zerrenda bat ere eman zen argitara, eta askotan horien izenak jakin ere ez dira egiten. Horien guztien, hots, izan zirenen eta izango direnen guztien omenez, egileek erregu zirrarragarri bat egiten dute lan honetan: urak itsasbazterrean eramaten dituen umeen, emakumeen eta gizonen gorpuen alde, inork abiatzen ikusi ez zituen mamuen alde, gure itsasoaren sakontasunean betiko galtzen diren hildakoen alde.

Lan honen aurkezpen ekitaldiak Arabako Foru Aldundiaren eta Gasteizko Udalaren laguntza eta lankidetzaren du, eta egileek ez ezik, Idoia Moreno Moriatik (Lesbos) etorri berri den MSFko erizain gasteiztarrak ere hartuko du parte. Legosen (Grezia) egon denean, errefuxiatuek bizi duten baldintza ankerren lekuko izan da, bai eta baldintza horiek pertsona horien osasun mentalean duten eragin larriena ere. Ikusi dituen bizipen ezin izugarriagoen artean, umeek eta nerabeek beren burua hiltzeko egiten dituzten ahaleginak nabarmentzen dira.

Mursego biolontxelo jotzaile eta konpositorearen ahotsak eta Santi Palaciosen eta Mikel Konateren “Coming Ashore” musika eta film laburra-dokumentalaren emanaldiak osatuko dute ekitaldi hau, doako eta lekua bete arteko sarrera izango duena. Programa horretan, komiki bat, dokumental bat, testigantza bat eta musika bat Mediterraneoan eta Lesbosen elkartzen dira, Europako mugetan eta giza eskubideak urperatzen diren gunetan.

Horrez gain, otsailaren 15etik martxoaren 30era bitartean, Zuloa liburudendan “Rescates en el Mediterráneo” izeneko argazki erakusketa bat izango da, non MSFren argazkiak eta *Como si nunca hubieran sido* komikiaren ilustrazioak nahastuko baitira. Erakusketa astelehenetik larunbatera izango da, 10:00etatik 13:30era eta 17:00etatik 20:30era. Gainera, otsailaren

21ean eta 22an, 17:00etatik 20:00era bitartean, erakusketa ikustera doazenak *Dignityra*, MSFren erreskate itsasontzietako batera sartuko dira, han egongo den errealitate birtualeko bideoaren bidez.

**Javier Gallego “Crudo”** kazetaria, poeta eta musikaria da. *Carne Cruda* irratsaioaren zuzendaria da. Berak idatzi zuen testua, lehendik *El grito en el cielo* poema-liburuan argitaratutako elegia bat.

**Juan Gallego** margolaria da, Arte Ederretan doktorea eta URJCKo Arte Ederren Fakultateko irakaslea. Bere pintura lana bineta ilun salatzaileen bidez aurkezten da hemen.

*Como si nunca hubieran sido* proiektu solidario gisa sortu zen. Egileek eta argitaletxeak ale bakoitzeko 3 euro emango dizkiote Mugarik Gabeko Medikuek erakundeari. Erakunde horrek medikuntza arloko ekintza humanitarioak egiten ditu eta laguntza eskaintzen die gatazka armatuen eta indarkeriaren mehatxupear, eta epidemia edo gaixotasun ahaztuen, jatorri naturaleko hondamendien edo mediku arretatik baztertuta dauden biktimei.

## **Juan Gallego y Javier Gallego ‘Crudo’ presentan en Vitoria-Gasteiz “Como si nunca hubieran sido”, un cómic ilustrado sobre la tragedia del Mediterráneo**

**Este evento, en el que colaboran la Diputación Foral de Álava y el Ayuntamiento de Vitoria-Gasteiz, tendrá lugar en el Centro Cultural Montehermoso Kulturunea**

**La presentación incluirá el testimonio de la enfermera gasteiztarra de MSF Idoia Moreno, que ha regresado recientemente de Moria (Lesbos), y la actuación en directo de Mursego, además de la proyección del corto documental “Coming Ashore”**

El próximo sábado 23 de febrero, a las 12 horas, Juan Gallego y Javier Gallego ‘Crudo’ presentarán en la Sala Ortuño del Centro Cultural Montehermoso Kulturunea “Como si nunca hubieran sido”. Un largo poema ilustrado sobre la tragedia de quienes mueren en el Mediterráneo tratando de llegar a Europa. El origen de este cómic lírico y de denuncia, que nace como un proyecto solidario en colaboración con Médicos Sin Fronteras (MSF), fue un titular de prensa publicado en 2015: “Podrían haber muerto 900 personas ayer en el Mediterráneo”. Hoy sabemos que en las últimas dos décadas más de 35.000 personas han perecido en el Mediterráneo. Hace pocos meses se publicó, incluso, una lista de las personas desaparecidas, de las que muchas veces no se conoce ni el nombre. Por todas ellas, por las que fueron y por las que serán, los autores entonan en esta obra una plegaria estremecedora: por los cadáveres de niños/as, mujeres y hombres que las aguas arrastran a la orilla, por los fantasmas a los que nadie vio partir, por los muertos que se pierden para siempre en la profundidad de nuestro mar.

El acto de presentación de esta obra cuenta con el apoyo y la colaboración de la Diputación Foral de Álava y el Ayuntamiento de Vitoria-Gasteiz, y además de los autores, contará con la participación de la enfermera gasteiztarra de MSF Idoia Moreno, quien acaban de regresar recientemente de Moria. Durante su estancia en Lesbos (Grecia), Moreno ha sido testigo de las condiciones inhumanas en las que viven las personas refugiadas y del grave impacto que tienen estas condiciones en la salud mental de estas personas. Entre las vivencias tan terribles que ha presenciado, destaca los intentos de suicidio de niños/as y adolescentes.

La voz y la música de la violonchelista y compositora Mursego, que actuará e interpretará varios temas en directo, y la proyección del corto-documental “Coming Ashore”, realizado por Santi Palacios y Mikel Konate, completarán el programa de este evento, gratuito hasta completar aforo, en el que un cómic, un documental, un testimonio y la música confluyen en el Mediterráneo y en Lesbos, fronteras de Europa y espacios donde naufragan los derechos humanos.

Adicionalmente, desde el 15 de febrero y hasta el 30 de marzo, la Librería Zuloa acogerá una muestra fotográfica que, bajo el título “Rescates en el Mediterráneo”, combina fotografías de

MSF con ilustraciones del cómic ‘Como si nunca hubieran sido’. La muestra se podrá visitar, de lunes a sábado, de 10 a 13.30 h y de 17 a 20.30 h. Además, los días 21 y 22 de febrero, entre las 17 y 20 h, contará con un vídeo de realidad virtual que subirá a quienes asistan a ver la muestra a bordo del Dignity, uno de los barcos de rescate de MSF.

**Javier Gallego ‘Crudo’** es periodista, poeta y músico. Dirige el programa de radio “Carne Cruda”. Es el autor del texto, una elegía publicada anteriormente en su poemario “El grito en el cielo”.

**Juan Gallego** es pintor, doctor en Bellas Artes y profesor en la Facultad de Bellas Artes de la URJC. Su labor pictórica se presenta aquí bajo la forma de oscuras viñetas de denuncia.

“**Como si nunca hubieran sido**” nace como un proyecto solidario. Los autores y la editorial donarán 3€ por ejemplar a Médicos Sin Fronteras, organización de acción médico-humanitaria que asiste a personas amenazadas por conflictos armados, violencia, epidemias o enfermedades olvidadas, desastres naturales o exclusión de la atención médica.